



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2015eko otsailaren 26a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Jon Redondo Lertxundi zinegotziak (EAJ) eta Eugenio Cotado Iturain zinegotziak (EAJ) adierazi dute ezin zutela etorri, herritik kanpo daudelako. Bi zinegotziok, beraz, ez dute bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrek 2014ko urriaren 30ean egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udalaren 2015eko Aurrekontu Orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal araua
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2015eko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Santiago Etxeberria Irastortzak eta Carpintería Botaleku SA entitate merkantilak formulatzen duten hitzarmenari. Bai Santiago Etxeberria Irastortza eta bai Carpintería Botaleku SA entitate merkantila Oriko 19. arearen —Botaleku— exekuzio-unitatearen barruko lurren jabeak dira eta hitzarmena eremu hori kontzertazio sistemaren bidez gestionatzeko formulatu dute.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Oriko Iturbide kalean udal ludoteka bat egokitzeko obren proiektu teknikoa. Proiektua udal arkitektoak idatzi du, lanak kontrata bidez egingo dira eta exekuzio-aurrekontua 199.383,87 eurokoa da (gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZa barne).
- 6.- Onartzea, egoki bada, baldintza administratibo partikularren orria, Oriko Iturbide kalean udal ludoteka bat egokitzeko lanen exekuzioa kontratatzeko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Oriko bake-epaitegiko langile publikoek aurkeztutako mozioa. Mozioan uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretuan ezarritakoaren kontra agertzen dira; errege dekretu horrek erregistratzaile merkantilen esku uzten du erregistro zibilaren gestioa.
- 8.- Onartzea, egoki bada, UEMAk aurkeztutako mozioa, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztupoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko.
- 9.- Onartzea, egoki bada, adierazpen instituzional bat, datorren martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruz.
- 10.- Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2014KO URRIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, eta honakoa adierazten du: aktaren zirriborroaren 12. puntuan, Itsas Enara ornitologia elkarteak Motondoko itxitura ehiza-babeseko eremua izendatzea eskatuz aurkeztutako mozioari buruzkoan, ez dela jasota geratu bere taldeak bozketa atzeratzea eskatzeko eman zuen arrazoia: alegia, nahiz eta mozioa udalbatzarra egin baino hilabete eta erdi lehenago aurkeztu zen Udalean, talde politikoek ez zutela izan horren berri askoz beranduago arte. Bestalde, adierazten du bere talde politikoak mozioaren edukiari buruzko txosten juridikoa eskatu ziola udal idazkaritzari 2014ko azaroan, Itsas Enara elkarteari behar bezala erantzun ahal izateko; baina, gaurko egunez, oraindik egin gabe dagoela txosten juridiko hori.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Miriam Urangak egindako oharra ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2014ko urriaren 30ean egindako ohiko bilkurako akta, Miriam Urangak udalbatzar honetan egindako oharra gehituta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2015EKO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL ARAUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Aurrekontuaren eta horren exekuzioari buruzko udal arauaren berri jasotzeaz gain, udalbatzarrak beste bi dokumentu hauen berri ere jasotzen du: idazkari-kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzko txostena, eta Orioko Udalak ematen dituen diru-laguntzen erregimen juridikoa arautzen duen udal ordenantza.

Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, eta honakoa adierazten du: bere talde politikoak aldeko botoa emango duela 2015eko udal aurrekontua onartzeko, honako bi baldintzekin: batetik, 6.000 euroko aurrekontu-partida gehitzea, Orioko ostalaritza-establezimenduetan egindako inbertsioak finantzatzeko; eta, bestetik, Orioko alde zaharrean (Kakionean) bi etxebizitza



saltzeagatik sortutako 146.000 euroko gerakina parke publiko estalia egiteko erabiltzeko konpromisoa hartzea.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango duela, honako arrazoiengatik:

- Hondakinen gestiorako aurrekontu-partida 90.000 eurotan gehitu da.
- Ez dago enplegurako aurrekontu-partidarik.
- Murritzatu egin dira kulturako aurrekontu-partidak.
- EAJren ordezkariak ezin izan zuen parte hartu Ogasun batzorde informatzaileak 2015eko aurrekontuaz eztabaidatzeko deitutako bilkuran eta, beraz, ezin izan du ekarpenik egin, kontuan hartuta aurrekontuaren egitura berritu egin dela eta horrek zailtasunak sortzen dituela.
- Bere talde politikoaren ustez, alkateak ez du izan ez borondaterik eta ez asmorik EAJri aukera emateko 2015eko aurrekontuari ekarpenak egiteko.

Aipamenengatik alkateak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

- Hondakinen gestiorako aurrekontu-partida gehitzeko arrazoiak azaltzen ditu, Urola Kostako Udal Elkartearen adostutakoaren baitan.
- Enplegurako aurrekontu-partidari buruz, dio gai hori Urola Kosta Udal Elkarteak sustatu eta garatzen duela.
- Kulturako partidei buruz, dio oso gutxi jaitsi direla kopuruak eta horiek azken bi urteotako likidazioen arabera kalkulatu direla.
- Aurrekontuaren zirriborroa 2015eko urtarrilaren 26an bidali zitzaizela Ogasun batzorde informatzaileko kideei, eta ekarpenak egitea eskatu zitzaizela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2015eko otsailaren 23n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2015eko Aurrekontu Orokorrari; aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:



ORIOKO UDALAREN AURREKONTUA

Sarrerren egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.110.300
2	Zeharkako zergak	50.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.519.381
4	Transferentzia arruntak	3.438.139
5	Ondarezko diru-sarrerak	475.525
6	Inbertsio errealen besterentzea	0
7	Kapital transferentziak	115.757
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		6.709.102

Gastuen egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	2.797.207
2	Ondasun arrunten erosketak	2.533.005
3	Finantzaketa gastuak	0
4	Transferentzia arruntak	996.808
6	Inbertsio errealak	377.582
7	Kapital transferentziak	4.500
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		6.709.102

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko udal araua, 2015. urteari dagokiona, Udalak ematen dituen diru-laguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2015eko aurrekontu orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko



Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera erregistroa, bulego orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udaltzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2015EKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERREDA.

Udaltzarrek gaiaren berri jakiten du.

Udaltzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2015eko otsailaren 23n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren 2015eko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

2.- ARGITARATZEA plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden legez xedapenen testuategia onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.



4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, SANTIAGO ETXEBERRIA IRASTORTZAK ETA CARPINTERÍA BOTALEKU SA ENTITATE MERKANTILAK FORMULATZEN DUTEN HITZARMENARI. BAI SANTIAGO ETXEBERRIA IRASTORTZA ETA BAI CARPINTERÍA BOTALEKU SA ENTITATE MERKANTILA ORIOKO 19. AREAREN —BOTALEKU— EXEKUZIO-UNITATEAREN BARRUKO LURREN JABEAK DIRA ETA HITZARMENA EREMU HORI KONTZERTAZIO SISTEMAREN BIDEZ GESTIONATZEKO FORMULATU DUTE.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2015eko otsailaren 23n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Santiago Etxeberria Irastortzak eta Carpintería Botaleku SA entitate merkantilak formulatzen duten hitzarmenari. Bai Santiago Etxeberria Irastortza eta bai Carpintería Botaleku SA entitate merkantila Orioko 19. arearen —Botaleku— exekuzio-unitatearen barruko lurren jabeak dira eta hitzarmena eremu hori kontzertazio sistemaren bidez gestionatzeko formulatu dute.

2.- JENDAURREAN JARTZEA kontzertazio-hitzarmena hogei laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, alegazioak aurkezteko aukera emateko.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ITURBIDE KALEAN UDAL LUDOTEKA BAT EGOKITZEKO OBREN PROIEKTU TEKNIKOA. PROIEKTUA UDAL ARKITEKTOAK IDATZI DU, LANAK KONTRATA BIDEZ EGINGO DIRA ETA EXEKUZIO-AURREKONTUA 199.383,87 EUROKOA DA (GASTU OROKORRAK, MOZKIN INDUSTRIALA ETA BEZA BARNE).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2015eko otsailaren 23n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko Iturbide kalean udal ludoteka bat egokitze obren proiektu tekniko. Proiektua udal arkitektoak idatzi du, lanak kontrata bidez egingo dira eta exekuzio-aurrekontua 199.383,87 eurokoa da (gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZA barne).



6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA, ORIOKO ITURBIDE KALEAN UDAL LUDOTEKA BAT EGOKITZEKO LANEN EXEKUZIOA KONTRATATZEKO, PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2015eko otsailaren 23n emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA baldintza administratibo partikularren orria, Orioko Iturbide kalean udal ludoteka bat egokitze lanen exekuzioa kontratatze, publikizaterik gabeko prozedura negoziatu bidez.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BAKE-EPAITEGIKO LANGILE PUBLIKOEN AURKEZTUTAKO MOZIOA. MOZIOAN UZTAILAREN 4KO 8/2014 ERREGE DEKRETUAN EZARRITAKOAREN KONTRA AGERTZEN DIRA; ERREGE DEKRETU HORREK ERREGISTRATZAILE MERKANTILEN ESKU UZTEN DU ERREGISTRO ZIBILAREN GESTIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitaltasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapidetza betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.



Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanez, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

Iaz, otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen moduan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

- 1. 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.*
- 2. Bake epaitegiak egungo zereginez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti Judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.*
- 3. Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jardura izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.*



4. *Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarren datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.*
5. *Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatutak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.*
6. *Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarrerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.*

Hau guztia dela eta, ORIOKO udalaren Osoko Bilkurari eskatzen dizkiogu:

1. *Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.*
2. *Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.*
3. *Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, udal honek eska diezaion Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko bake-epaitegiko langile publikoek aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UEMA-K AURKEZTUTAKO MOZIOA, EUSKALDUNOI EZARTZEN ZAIZKIGUN OZTOPOAK SALATU ETA EUSKARAZ BIZITZEKO NAHIA ALDARRIKATZEKO.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Espainiako Gobernuaren ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari den esku-hartzeak bete-betean harrapatu gaitu UEMA eta bertako udalak. Kontratazioetako hizkuntza irizpideak, diru-laguntzetarako hizkuntza irizpideak, aktak euskaraz bidaltzea edota udalak euskalduntzeko adostutako hizkuntza irizpideak susmopean jarri dituzte. Bi udalek UEMAn, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko hartutako erabakiaren aurka ere jo du Espainiako Gobernuaren ordezkariak.

Horrela, udalen eguneroko jarduna eta udalok euskara sustatzeko egiten ari garen lana baldintzatzen dute. Administrazio publikoak hainbat zerbitzu erdara hutsean eskaintzen dituen bitartean, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko prestatuta gauden udalak dira susmopean jarri nahi izan dituztenak.

Egoera larria da. Euskararen ofizialtasuna bera ari dira zalantzan ipintzen. Teorian euskara zein gaztelania hizkuntza ofizialak dira Euskal Erkidego Autonomoan. Baina, praktikan euskarak, erdara erabili ezean, ez duela balio ofizialik esaten digute errekerimendu eta helegiteen bitartez.

Egoera honen aurrean Orioko Udalak adierazi nahi du:

- Orioko Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.*
- Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerrri euskaldunak, euskararen arnaguneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnaguneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz.*
- Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean eta bereziki euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatu nahi dugu. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana bertan behera uzteko eskatzen dugu.*
- Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak babestu ditzan.*
- Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztopoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, otsailaren 28an, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuta egingo den Manifestazioarekin bat egin nahi du Orioko Udalak. Herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioan parte hartzeko.*



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA UEMAk aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ADIERAZPEN INSTITUZIONAL BAT, DATORREN MARTXOAREN 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN OSPAKIZUNARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

Urtero-urtero, martxoaren 8an borroka feminista eguneratzen dugu. Emakumeok bizitzaren eta gorputzaren jabe izatea lortu behar dugu, bizimodu duina izateko eta sendotasun ekonomikoa eta soziala lortzeko. Emakumeak, edonon egonda ere, subjektu politiko eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragile izan behar du.

Horretarako, funtsezkoa eta estrategikoa da erakundeek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzea. Ildo horretan, argi eta garbi adierazi nahi dugu toki-erakundeek eskutik xede horretarako programak eta baliabideak kentzeko asmoarekin etor litekeen erreforma oro gaitzetsi egingo dugula.

Orioko Udalak honako lehentasunak markatu nahi ditu:

- Berdintasunerako politika publikoak garatzea, politika horien eskura aurrekontu eta teknikari egokiak jarritz.*
- Programak eta proiektuak aztertu, garatu eta ebaluatzerakoan udalaren gobernu-ekintza orok genero-ikuspegia kontuan hartzeko neurriak bultzatzea.*
- Emakumeen elkarrekin eta mugimendu feministarekiko elkarbizketa politikoa indartzea.*
- Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko politikak eta berdintasunerako politikak etengabe uztartzea.*

*Azken puntu horri lotuta, Orioko Udalak salatu egin nahi du pasa den igandean, otsailak 22, herrian gertatu zen ustezko genero indarkeria kasua: 29 urteko gazte bat atxilotu zuten Orion, haurdunaldiaren zortzigarren hilabetearen dagoen bikotekidea jo zuelakoan. Orioko Udalak, gertakaria gaitzesteaz gain, babesa eskaintzen dio biktimari. **Horrez gain, elkartasuna adierazteko, honako***



eskaera egiten die Orioko dendari, profesional eta tabernariei: datorren asteburuan, otsailaren 27tik martxoaren 1a bitartean, jar dezatela beren establezimenduan, ageriko toki batean, Udalak banatuko dien PUNTU MOREA, indarkeria matxista gaitzesteko eta gaiarekiko sentiberatasuna zabaltzen laguntzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA datorren martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruzko adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, eta eskatzen dio udal idazkari-kontu-hartzaileari txosten bat egin dezala, 2011-2015 legealdi honetan onartutako kreditua aldatzeko espedienteetan erabili den diruzaintzako gerakinari buruz, argi azalduz nola islatu den hori udal kontuetan eta diruzaintzaren egoeran.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratuetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,